

1. Ikasle berrien matrikula: lehenengo mailan matrikulatutako ikasleak

2025-2026 ikasturteko kredituaren kostua, batez beste, 95€-koa da. Hortaz, lehenengo ikasturteko zenbatekoa, guztira, **6.840€**-koa izango da (72 kreditu ECTS).

Matrikula bi kontzeptuk osatzen dute:

- Matrikula
- Irakaskuntzaren hilekoak

Tokia gordetzeko erreserbaren kopurua, matrikularen ordainagiriari kenduko zaio.

Zenbateko horiek ikasleak "SEPA-Zuzeneko Zordunketa helbideratzeko Agindua" orrian jarritako banku kontura helbideratuko dira. Aipatutako dokumentua behar bezala beteta eta kontuaren titularraren sinadura originala duela entregatu beharko da. Hala egiten ez bada, matrikula baliorik gabe utz dezakegu.

Ordainketak bankura helbideratzeko datuak aldatu nahi izanez gero, Idazkaritzari jakinarazi behar zaio. Hilaren 25a baino lehenago jakinaraziz gero, aldaketa ordaindu beharreko hurrengo hilekoan gauzatuko da.

1.1. Plaza gordetzea:

Plaza-kopurua mugatua denez, Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolak "plazak erreserbatzeko" sistema ezarri du, onartzen diren aurrematrikulatutako ikasleen artean. Sistema honek plaza bermatzen du, aldeko ebaluazioa jasotzen den ikasketetan. Horretarako, **500 €-ko** ekarpena egin beharko da, hasierako % 20ko matrikularen aurrerakin gisa, betiere, jarritako baldintzak ezarritako matrikula-epean betetzeko gero.

Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolak kasu hauetan bakarrik **itzuliko du tokia gordetzeko ordaindutako zenbatekoa**:

1. Hautagaiak tokia gordetzearen ondorio den kontratu-harremanetan atzera egiteko eskubidea baliatzen badu, plaza gordetzeko ordainketa egiten denetik 14 egun naturaleko epean, arrazoia adierazi gabe eta inolako kosturik gabe, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testuategina onartzen duen azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako errege Dekretuaren 102. Artikuluan xedatzen denaren arabera.

Atzera egiteko eskubide hori ezarritako epearen barruan erabiltzeak ikasle berri gisa Unibertsitatean sartzeari dagozkion eskubide guztiak galtzea ekarriko du.

2. Baldin eta hautagaiak ez baditu betetzen legeak ikasketan sartzeko ezarritako baldintza, edo ez baditu betetzen Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolak ikasketa horietan matrikulatzeko ezarritako baldintza guztiak. Horretarako, plaza gordetzea ordaindutako urtea amaitu aurretik, eskaera egin beharko dute ikasleek eta egoera hori frogatzen duten agiriak erantsi. Inola ere ez da arrazoi nahikoa izango hautagaia beste ikasketa batzuetan onartua izan dela frogatzen.

1. Matricula de nuevo ingreso: alumnos matriculados en 1ºCurso

En el curso 2025-2026 el precio unitario del crédito es de 95€, por lo que el coste total del grado para un alumno de 1ºcurso (72 créditos ECTS) asciende a **6.840 €**.

El importe total se desglosa en dos conceptos:

- Matricula
- Plazos de enseñanza

El importe del pago de la reserva de plaza obligatoria será descontado del recibo de matrícula.

Todos los importes se domiciliarán en la cuenta bancaria que consigne el estudiante en el impreso "Orden de Domiciliación de Adeudo Directo SEPA". Este documento debe ser entregado debidamente cumplimentado y con la firma original del titular de la cuenta. En caso contrario su matrícula podrá ser anulada de oficio.

Si el estudiante deseara proceder al cambio de los datos de domiciliación bancaria, deberá notificarlo a la Secretaría de la Escuela. Si la notificación se realizara antes del día 25, el cambio se hará efectivo en la siguiente mensualidad a pagar.

1.1. Reserva de Plaza:

Dado que el número de plazas es limitado, la E.U. de Magisterio Begoñako Andra Mari ha establecido el sistema de "Reserva de plaza" para los preinscritos que sean admitidos. Este sistema garantiza la plaza para cursar los estudios en los que se haya obtenido evaluación favorable, mediante la realización de un pago mediante TPV de **500€** como anticipo a cuenta del importe de matrícula del 20%, que se podrá realizar siempre que se cumplan los requisitos en el plazo de matrícula asignado.

La E.U. de Magisterio Begoñako Andra Mari sólo **reintegrará el importe de la reserva de plaza** en los siguientes casos:

1. En caso de que la persona candidata ejerza el derecho de desistimiento de la relación contractual derivada de la reserva de plaza durante un periodo de 14 días naturales desde el pago de la misma, sin indicar el motivo y sin incurrir en ningún coste, de conformidad con el art. 102 del Real Decreto Legislativo 1/2007, de 16 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la ley General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios y otras leyes complementarias.

El ejercicio de este derecho de desistimiento dentro del plazo establecido supondrá la pérdida de todos los derechos inherentes al ingreso como nuevo estudiante en la Universidad.

2. En caso de que la persona candidata no hubiera superado los requisitos legales establecidos para el acceso al estudio o no cumpliera todos los requisitos establecidos por la E.U. de Magisterio BAM para la matrícula en dicho estudio. La solicitud deberá de ser presentada por parte del candidato, antes de la finalización del año en que realizó el pago de la reserva de plaza, con la justificación fehaciente de dicha situación. En ningún caso constituirá causa justificada el hecho de que la persona candidata haya sido admitido en otros estudios.

1.2. Matrikula:

Matrikularen zenbatekoa kostu osoaren **%20** da (ordaindutako plazaren erreserba kenduta), hau da, **868€**.

Kopuru hau banku-helbideratze bidez ordainduko da, Idazkaritzan aurrez aurre matrikula egin ondoren.

Zenbateko hori **ez da inoiz itzuliko matrikula geroago ezabatzen bada**.

1.3. Irakaskuntzako hilekoak:

Gainerakoa –hau da, 5.472€– **684€-ko zortzi hilekotan** ordainduko da urritik maiatzera. Ordainketa hil bakoitzeko 15ean egingo da banku-helbideratze bidez.

Ikasleak matrikularen ordainagiri horiek ordainketa bakarrean ordaindu nahi izango balitu, aldaketa Ekonomia eta Finantza Sailari eskatu beharko dio. Hala, ordainketa bakarra hurrengo ordainagirian kobratuko da.

2. Matrikula berritzea: gainontzeko mailetan matrikulatutako ikasleak (2., 3., 4. eta 5. mailakoenetan)

2025-2026 ikasturteko kredituaren kostua, batez beste, 95€-koa da (matrikula berria eta gainditu gabekoena). Ikasturte bateko matrikularen zenbatekoa matrikulatutako kreditu kopuruaren arabekoa da.

Automatrikula prozesuan ikusiko dituzu Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolan banku helbideratzea egin ahal izateko ditugun zure banku datuak. Datu hauek aldatu nahi izanez gero, aldaketa Idazkaritzari jakinarazi beharko zaio. Hilaren 25a baino lehenago jakinaraziz gero, aldaketa ordaindu beharreko hurrengo hilekoan gauzatuko da.

Matrikula bi kontzeptuk osatzen dute:

- Matrikula
- Irakaskuntzaren hilekoak

2.1. Matrikula:

Matrikulari dagokion zenbatekoa ordainketa bakar baten bidez igorriko da kobratzera irailaren 22an, matrikula egindakoan eta ikasturteko kostuaren **%20**ari dagokio.

2.2. Hilekoen zenbatekoa:

Ikasketen hilekoei dagozkion zenbatekoa **8 hiletan** ordainduko da, urritik maiatzera. Ordainketa hil bakoitzeko 15ean egingo da banku-helbideratze bidez.

- Ikasleak matrikularen 8 ordainagiri horiek ordainketa bakarrean ordaindu nahi izango balitu, aldaketa Idazkaritzari eskatu beharko dio, urriaren 10a baino lehen. Hala, ordainketa bakarra urriaren 15ean kobratuko da.
- Lehen sei hilekoko irakasgaiak bakarrik matrikulatzen badira: irakaskuntza-epeak 4 hilekotan kobratuko dira urritik urtarrilera.
- Ikasketak lehenengo sei hilekoan amaitzen badituzu eta titulua eskatu nahi baduzu, ikastaroko ordainketa guztiak ordaindu beharko dituzu.

1.2. Matrícula:

La cuantía del importe de matrícula corresponde al **20%** del coste total (menos la reserva de plaza abonada, en su caso) esto es, **868€**.

Este importe se pagará mediante domiciliación bancaria una vez formalizada la matrícula presencialmente en la Secretaría de BAM.

Este importe **no será nunca devuelto en caso de que se anule la matrícula posteriormente**.

1.3. Plazos de enseñanza:

El resto, esto es, 5.472 € se abonará en **ocho mensualidades de 684€ cada una**, que se abonarán los meses de Octubre a Mayo mediante domiciliación bancaria el día 15 de cada mes.

Si el alumno deseara pagar las mensualidades pendientes en un único pago, deberá solicitar el cambio en el Departamento Económico Financiero y dicho recibo se pasará en la siguiente mensualidad.

2. Renovación de matrícula: alumnos matriculados en cursos superiores (2º, 3º, 4º y 5º curso)

En el curso 2025-2026 el precio del crédito (nueva matrícula y pendiente) es de 95€. El coste total de un curso es proporcional al número de créditos matriculados.

Durante el proceso de **automatricula** figurarán los datos bancarios que constan en la E.U. de Magisterio Begoñako Andra Mari. Si el estudiante deseara proceder al cambio de los datos de domiciliación bancaria, deberá notificarlo a la Secretaría de la Escuela. Si la notificación se realizara antes del día 25, el cambio se hará efectivo en la siguiente mensualidad a pagar.

El importe total se desglosa en dos conceptos:

- Matrícula
- Plazos de enseñanza

2.1. Matrícula:

El importe correspondiente a la matrícula se pasa al cobro en un único recibo el 22 de septiembre, una vez realizada la matrícula y se corresponde con el **20%** del coste anual del grado.

2.2. Plazos de enseñanza:

El importe correspondiente a los plazos de enseñanza se abona en **8 mensualidades**, de Octubre a Mayo, mediante domiciliación bancaria el día 15 de cada mes.

- Si el alumno deseara pagar estos 8 recibos de matrícula en un único pago, deberá solicitar el cambio en Secretaría antes del 9 de octubre y el recibo se pasará al cobro el 10 de octubre.
- Si sólo se matricularan asignaturas del primer semestre: se cobrarán los plazos de enseñanza en 4 mensualidades de octubre a enero.
- Si finalizara estudios en el primer semestre y desea solicitar la expedición del título, deberá haber satisfecho completamente los pagos del curso.

3. Eskola-asegurua

Eskola-asegurua derrigorrezkoa da ikasketa ofizialak egiten dituzten ikasle guztientzat (espainiarrentzat eta legez Espainian bizi diren atzerriarrentzat), honako hauentzat izan ezik:

- aurtengo irailaren 1erako 28 urte beteak izango dituztenentzat.
- beste ikastegi batean ordaintzen dutenentzat (hala bada, horren egiaztatzea erakutsi behar dute).
- Gizarte Segurantzaren langile titular gisa kotizatzen duten ikasleentzat.

Eskola-asegurua urteko kuota (**1,12 €**) ezinbestean ordaindu beharreko tasa da, eta ikasturte bakoitzeko lehen ordainagirian ordainduko da, dagokion matrikula formalizatu ondoren.

Eskola-asegurua 1953ko uztailaren 17ko legearekin (uztailaren 18ko EBO) sortu zen, eta abuztuaren 28ko 1633/1985eko Errege Dekretuak ezartzen du haren zenbatekoa.

4. Aitorpen-tasa

Aitortutako irakasgaien kredituek aitorpen tasa ordaindu beharko dute, hilekoen zenbatekoaren **%6,25** ikasturte honetarako. Aitorpen tasa irakasgaiaren matrikula egin ondoren ordainduko da.

Sarrerako prozesuan aitortutako kredituek ez dute tasa hori ordaindu beharko.

5. Hobariak

- Ohorezko matrikulak Unibertsitate aurreko ikasketetan: Batxilergoko bigarren mailan edo parekoan kalifikazio orokorra ohorezko matrikula ateratu duten ikasleei ECTS kreditu bati dagokiona gutxituko zaie matrikula-eskubideen zenbatekoan. Hobari hau behin bakarrik esleituko da, eta proportzionalki banatuko da ikasturteko hileko ordainketetan. Horretarako eskubidea dutela egiaztatzeko, Batxilergoko ikasketa-historian nota hori ageri den orriaren fotokopia konpultsatua (edo fotokopia eta originala, biak eratzeko) aurkeztu behar dute.
- Ohorezko matrikulak unibertsitate-ikasketetan: Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolako unibertsitate-ikasketetako ikasgai bat edo gehiagotan "ohorezko matrikula" aipamena jasotzen duten ikasleek, hurrengo ikasturtean, eskubidea izango dute % 20ko hobaria izateko aipamen hori jasotako kreditu-kopuru berean (baldu eta ikasleak ez baditu ikasketak uzten hobaria jaso behar duen ikasturtean). Hobari hau behin bakarrik esleituko da, eta proportzionalki banatuko da ikasturteko hileko ordainketetan.

3. Seguro Escolar

El Seguro Escolar es obligatorio para todos los estudiantes (españoles y extranjeros con residencia legal en España) que cursan estudios oficiales, excepto:

- si han cumplido 28 años antes del 1 de septiembre del presente año.
- si lo abonan en otro centro de estudios, en cuyo caso deben acreditarlo mediante presentación de justificante.
- Los estudiantes que coticen a la Seguridad Social como trabajadores titulares.

La cuota anual del Seguro Escolar (**1,12 €**) es una tasa de pago obligatorio que se abonará en el primer recibo domiciliado de cada curso, una vez formalizada la matrícula correspondiente.

El Seguro Escolar se crea por la ley de 17 de julio de 1953 (BOE de 18 de Julio), así con el R.D. 1633/1985, de 28 de agosto, por el que se fija la cuantía del mismo.

4. Tasa de Reconocimiento

Los créditos de asignaturas reconocidas devengarán la tasa de reconocimiento, que se ha fijado en el **6,25%** del importe de los plazos de enseñanza. Esta tasa de reconocimiento se abonará una vez efectuada la matrícula de la asignatura correspondiente.

El reconocimiento de créditos en proceso de ingreso estará exento del pago de esta tasa.

5. Deducciones

- Matrículas de Honor en estudios preuniversitarios: Los estudiantes que hayan obtenido calificación global "Matrícula de Honor" en 2º de Bachillerato o equivalente, recibirán durante el primer año de matrícula la bonificación correspondiente a 1 crédito ECTS de los plazos de enseñanza. Esta bonificación se aplicará una sola vez y se hará efectivo de manera proporcional en las mensualidades del curso. Para acreditar el derecho a esta deducción, debe presentarse una fotocopia compulsada (o fotocopia y original para su cotejo) de la página del historial académico de Bachillerato en la que conste dicha calificación.
- Matrículas de Honor en estudios universitarios: Los alumnos que hayan obtenido la mención de "Matrícula de Honor" en una o varias asignaturas de estudios universitarios de la E.U. de Magisterio Begoñako Andra Mari, tendrán derecho durante el próximo curso a una bonificación del 20% del coste del mismo número de créditos en los que obtuvo tal mención (siempre y cuando el alumno no abandone estudios durante el curso a bonificar). Esta bonificación se aplicará una sola vez y se hará efectivo de manera proporcional en las mensualidades del curso.

6. Matrikula deuseztatzea

Ikasleak ikasketetan baja emateko edo matrikula baliogabetzeko eskatu ahal izango du, idatziz, ikastetxeko idazkaritzari modu frogagarrian jakinarazita.

6.1. "Matrikularen" zenbatekoan ondorio ekonomikoak: Ikasle berriak

Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolako idazkaritzan **aurrez aurre** matrikula egin ondoren, ikasleak matrikularen zenbatekoa ordaindu beharko du (868 €).

Zenbateko hori ez da itzuliko ikasle berriak matrikula formalizatu ondoren baliogabetzen badu

6.2. "Matrikularen" zenbatekoan ondorio ekonomikoak: goi-mailako ikasleak (2., 3. eta 4. mailak)

Goi mailako ikastaroetako ikasleak, bere burua **online** matrikulatzen badu, matrikularen ondoriozko kontratu-harremanean atzera egiteko eskubidea baliatu ahal izango du, matrikula formalizatu eta **14 egun naturaleko** epean, arrazoia adierazi gabe eta inolako kosturik gabe, 1/2007 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren testu bategina eta beste lege osagarri batzuk onartzen dituen 102. Artikuluan xedatzen denaren arabera.

6.3. "Hileko ordaintzen" zenbatekoan uko egitearen ondorio ekonomikoak

Ikasleak baliogabetzeko unera arte ordaindutako zenbatekoak ez dira inolara ere itzuliko.

Ikasleak matrikula ezeztatze eskatzen duen hilabeteari dagokion hilekoa ordaindu beharko du.

Matrikula **lehen sei hilekoan** ezeztatzen bada, Administrazio Sailari jakinaraziko zaio, baja formalizatu eta hurrengo hilabetetik aurrera ordaintzeke dauden hilekoen kobrantza eten dadin.

Matrikula **bigarren sei hilekoan** ezeztatzen bada, ordaintzeke dauden hilekoak eten ahal izateko, ikasleak lehenengo sei hilekoan matrikulatutako irakasgai guztiak ordaindu beharko ditu aldez aurretik.

6. Baja o anulación total de matrícula

El alumno podrá solicitar la baja en estudios o anulación de su matrícula mediante instancia por escrito, comunicada de forma fehaciente a la Secretaría del Centro.

6.1. Efectos económicos en el "importe de matrícula": Alumnos de nuevo ingreso (1º curso)

Una vez formalizada la matrícula de manera **presencial** en la Secretaría de la E.U. de Magisterio Begoñako Andra Mari, el alumno estará obligado al pago del importe de matrícula (868€).

Este importe no será devuelto en caso de que el alumno de nuevo ingreso anule la matrícula después de su formalización.

6.2. Efectos económicos en el "importe de matrícula": Alumnos de cursos superiores (2º, 3º y 4º curso)

El alumno de cursos superiores que realice su **automatricula** de manera **on-line**, podrá ejercer el derecho de desistimiento de la relación contractual derivada de la matrícula durante un periodo de **14 días naturales** desde la formalización de la misma, sin indicar el motivo y sin incurrir en ningún coste, de conformidad con el art. 102 del Real Decreto Legislativo 1/2007, de 16 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la ley General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios y otras leyes complementarias.

6.3. Efectos económicos en el "importe de las mensualidades o plazos de enseñanza" pendientes de pago

Los importes abonados por el alumno hasta el momento de la anulación no se devolverán en ningún caso.

El alumno quedará obligado al pago de la mensualidad correspondiente al mes en el que solicita la anulación de dicha matrícula.

Si la anulación de la matrícula se produce en el **primer semestre**, se comunicará al Departamento de Administración para que a partir del mes siguiente al de la formalización de la baja, se interrumpan el cobro de las mensualidades pendientes de abonar.

Si la anulación de matrícula se formaliza en el **segundo semestre**, la interrupción de las mensualidades pendientes de pagar estará condicionada a que el alumno haya abonado previamente la totalidad de las asignaturas matriculadas en el primer semestre.

7. Matrikula zuzentzea

Okerren bat ikusiz gero, edo salbuespen gisa, egindako matrikula aldatu beharko balitz, Idazkari Akademikoari zuzendutako instantzia bitartez aldaketa edo zuzenketa eskatu beharko da.

- **Lehenengo sei hilekoko** ikasgaiak: (*)
 - Ikasgaiak zuzentzeko eskaera urriaren 1a baino lehenago aurkeztzen bada, ez da ordaindu beharko ezeztatutako ikasgaiei dagokien hilekorik.
 - Eskaera urriaren 1etik 31ra bitartean aurkeztuko balitz (biak barne), dagokien hilekoen % 50 ordaindu beharko dute.
- **Bigarren sei hilekoko** ikasgaiak: (*)
 - Ikasgaiak zuzentzeko eskaera otsailaren 15a baino lehen aurkeztzen bada, ez da ordaindu beharko ezeztatutako ikasgaiei dagokien hilekorik.
 - Eskaera otsailaren 15etik 28ra bitartean aurkeztuko balitz (biak barne), dagokien hilekoen % 50 ordaindu beharko dute.

Data horren ostean egindako eskaeren kasuan ez da dirurik itzuliko.

Data horren ostean egindako eskaeren kasuan ez da dirurik itzuliko.

(*). Data hauek eguneratu egingo dira

7. Rectificación de matrícula

Si se detectaran errores o, por motivos excepcionales, necesitara modificar la matrícula realizada, deberá solicitar la rectificación o modificación mediante instancia dirigida a la Secretaría Académica y presentarla en Secretaría en los plazos indicados.

- Asignaturas del **primer semestre**: (*)
 - Las solicitudes de rectificación de asignaturas presentadas antes del 1 de octubre quedarán exentas del importe de las mensualidades de enseñanza de las asignaturas que se anulasen.
 - Si se presentara entre el 1 y el 31 de octubre, ambos inclusive, abonarán el 50% del importe de las mensualidades de enseñanza correspondiente.
- Asignaturas del **segundo semestre**: (*)
 - Las solicitudes de rectificación de asignaturas presentadas antes del 15 de febrero quedarán exentas del importe de las mensualidades de enseñanza de las asignaturas que se anulasen.
 - Si se presentara entre el 15 y el 28 de febrero, ambos inclusive, abonarán el 50% del importe de las mensualidades de enseñanza correspondiente.

Las correcciones solicitadas con posterioridad no surten efectos de descuentos económicos.

Las correcciones de asignaturas solicitadas con posterioridad no surten efectos de descuentos económicos.

(*) Estas fechas serán actualizadas.

8. Eusko Jaurlaritzaren eta Deustuko Unibertsitatearen arteko hitzarmena

Eusko Jaurlaritzaren eta Deustuko Unibertsitatearen arteko hitzarmenaren ondorioz, Eskola honetako ikasleek ere har ditzakete Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak urtero ezartzen dituen hobariak.

Eusko Jaurlaritzak, bere aurrekontuetatik, talde jakin batzuentzat zenbateko bat jartzeko konpromisoa du. Eskubide hori duten ikasleek eskatutako guztizko zenbatekoa aurrekontuetan zehaztutakoa baino handiagoa bada, laguntzaren zenbatekoa proportzioan gutxituko da, laguntza hori jasotzeko eskubidea duten ikasleen kopuruaren arabera.

Eskabideak hurrengo baldintzak betetzen dituztenek aurkez ditzakete:

- Maila orokorreko edo bereziko **familia ugari**koa izatea.
- Terrorismoaren biktimak edo terrorismoaren biktimen senitartekoa izatea.
- Ikasleak %33 edo gehiagoko **ezgaitasuna** edo minusbalotasuna edukitzea edo senitartekoren batek %65koa edo gehiagokoa.
- Genero-indarkeriaren biktimak edo biktimen senitartekoa izatea.
- Asilo eskatzailea, nazioarteko babesaren onura duena eta aberrigabea.

8. Convenio del Gobierno Vasco con la Universidad de Deusto

Por Convenio entre el Gobierno Vasco y la Universidad de Deusto, los estudiantes de esta Escuela también pueden acogerse a los beneficios que anualmente establece la Consejería de Educación, Universidades e Investigación.

El Gobierno Vasco se compromete a aportar una cantidad presupuestaria determinada a estos colectivos. En el caso de que las cantidades solicitadas por el conjunto de los alumnos beneficiarios de este derecho superen la citada cantidad, el importe de la ayuda se reducirá proporcionalmente en función de los alumnos que tengan derecho a la misma.

Las solicitudes podrán presentarse según las siguientes condiciones:

- **Familia numerosa** de categoría general o categoría especial.
- Víctima de terrorismo o familiar de víctima de terrorismo.
- **Discapacidad** o minusvalía del estudiante (33% o superior) o de un familiar (65% o superior).
- Víctima de violencia de género o familiar de víctima.
- Solicitante de asilo, beneficiaria de protección internacional apátrida.

Egoera bakoitzari dagokion hobaria ikasketa bakoitzerako ezarritako prezio publikoaren gainean kalkulatu da, ez ikasketa horrek gure unibertsitate eskolan duen matrikula- prezioaren gainean.

Hobarien eskaria egiteko, honi erantsitako inprimakia bete behar da eta egoeraren arabera eskatzen den dokumentazioarekin batera (eskabide orriaren atzealdean dago zehaztuta) Idazkaritza Orokorrera ekarri matrikularekin, **2025eko irailaren 30era arte**.

Hobariaren **eskaera urtero** egin beharko da.

Eskatzaileek komunikazio pertsonala jasoko dute eta dagokien diru kopurua ordainduko zaie, Eusko Jaurlaritzak likidazioa egiten duenean. Emandako kopurua ikasleak baimendutako kontuan egingo da transferentzia bidez eta ez da inoiz ere izango Eusko Jaurlaritzak Deustuko Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmenean bere gain hartutako konpromisoa baino handiagoa.

9. BAMeko Beka Programa

Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolak bere Beka Programa eskaintzen du. Beka horiek bateragarriak dira erakunde ofizialek (Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntza Ministerioak, etab.) eskaintzen dituztenekin.

Graduko ikasleentzat, programa horrek diru-laguntzak zehazten ditu. Diru-laguntza horiek **% 10** eta **% 50** bitarteko beherapenak ezartzen dituzte, Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolak ezarritako hileko ordainketen gainean. Murrizketa familia-unitatearen errenta-mailaren arabera izango da.

Eskabidea aurkeztu aurreko ikasturtean 8tik gorako batez besteko nota duten goi-mailako beka-dunek %10eko gehigarria jasoko dute errendimendu akademiko handiagatik.

Eskaera aurkezteko epea: **2025eko ekainaren 2tik uztailaren 11ra**

10. Eusko Jaurlaritzaren beken deialdia

Web orri honetan, Eusko Jaurlaritzaren deialdi ofizialaren **araudia eta aurkezteko epeak** kontsulta ditzakezu:
www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

La bonificación correspondiente será calculada sobre la base del precio público establecido para cada estudio, no sobre el precio de matrícula de dicho estudio en nuestra Escuela Universitaria.

Para solicitar estas deducciones, deberá cumplimentar el impreso pertinente y acompañarlo de la documentación requerida al caso, que se detalla al reverso del impreso de solicitud, y entregarlo en la Secretaría junto con la matrícula o, en todo caso, **antes del 30 de septiembre de 2025**

La **solicitud** de bonificación deberá realizarse **anualmente**.

Los solicitantes recibirán comunicación personal y abono de la cantidad que les corresponda cuando el Gobierno Vasco proceda a su liquidación. La cantidad concedida se abonará en la cuenta autorizada, mediante transferencia y en ningún caso podrá ser superior al compromiso asumido por el Gobierno Vasco en el Convenio suscrito con la UD.

9. Programa de Becas BAM

La Escuela Universitaria de Magisterio Begoñako Andra Mari tiene establecido un Programa de Becas propio, compatible con las convocatorias de becas y ayudas de las instituciones públicas (Gobierno Vasco, Ministerio de Educación, etc.).

Para los estudiantes de grado, este Programa tiene establecidas ayudas económicas que: consisten en un descuento porcentual (entre el **10%** y el **50%**) sobre el importe de las mensualidades de la E.U. de Magisterio Begoñako Andra Mari, dependiendo del nivel de Renta de la Unidad Familiar.

Los becarios de cursos superiores que tengan una nota media superior al 8 en el curso académico anterior al de la presentación de la solicitud, obtendrán un porcentaje adicional de beca del 10% por alto rendimiento académico.

Plazos de solicitud: **Del 2 de Junio al 11 de Julio de 2025**

10. Convocatoria de becas del Gobierno Vasco

Consulta en la siguiente página web la **normativa y plazos** de presentación de la convocatoria oficial del Gobierno Vasco:
www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net